



**Zuhaitzak zer esango du  
hamabi hilabeteetan**

**Erroak sartuak ditu  
zure lur aberatsetan**

**Mundua ero jira da  
hilabete apur hauetan**

**Zuhaizpe Jose Luix dugu  
bere argi ta itzaletan**

**Zure memoria bihurtu  
nahiko nuke barrenetan**

**Kantuz piztuko nituzke  
zure begirada horretan**

**Islatzen ziren asmoak  
distira bihurrietan**

**Zenbat botatzen da faltan  
musika zure hitzetan**

Areso 2006-03-04

## Jose Luisi agur eta ohore

Gaurkoa ez da agurra  
ezta ere amaiera  
bizitzan dena emanda  
gure artetik jun zera  
kritikalari zorrotza  
borrokalari itzela  
bainan gogoan duguna  
aholkulari fidela  
hutsune izugarria  
guregan nabari dena  
nola aurrera jarraitu  
zuk erakutsi bezela  
tandem-a dugu ezagun  
Jose Luis eta Teresa  
hazia erein dezute  
ta orain loratu beza



Hamaika burutazio  
zuga pentsatzen jartzean  
hamaika irribarretxo  
zure txantxak oroitzean  
umore zorrotza zendun  
hitzak dantzan ipintzean  
zirrara sortuaraziz  
albokoen barrenean  
bihurri aurpegiarekin  
begirada makurtzean  
neurriko gaiztakeria  
zure ezpainen artean  
algarak sortuaraziz  
baina burua lanean  
tabuak azalaraziz  
osasunera bidean

Eduarne Izaguirre